

## Tokiko Agenda 21eko Foroaren akta



“Nola baloratzen dugu Legazpi bizitzeko udalerrri gisa?”



2015eko apirilaren 23an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan.

Gaur, urtero egiten dugun **Tokiko Agenda 21aren eta Legazpiko Eskola-agenda 21aren arteko topaketa** egin dugu.

Aurten ere ikastetxeek egiten duten lana ezagutzeko eta baloratzeko aukera izan dugu; horren gainean hitz egin dugu eta errealitate eta ikuspegi desberdinekin aberastu dugu taldea.

Tailer interesgarria, atsegina, dibertigarria izan da eta praktikan jarri dugu entzumena, empatia eta elkarrizketa sortzailea.

Ez da gutxi! Ikus dezagun zehatz-mehatz jarraian.

## 1. Nortzuk? Parte hartu duten pertsonak

**24 pertsonak** hartu dute parte gaurko tailerrean eta bizitasunez eta edukiez bete dute. Zehazki hona hemen parte hartu dutenak:

- **Legazpiko ikastetxeetatik: Haztegi ikastola, Olazabal institutua eta Domingo Agirre eskola:**

Maite Odriozola – Laura Hurtado – Ainhoa Gabilondo – Joseba Agirre – Xabi Gabirondo – Koro Zabaleta – Itziar Ugarte – Iñaki Mauleon.

- **Foroko ohiko kideak:**

Manuel Fernandez (Nagusilan) – Montse Vallejo – Feli Nuñez – Edurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Pilar Makibar – Lucia Areizaga (Itxaropen Elkarte eta Hamaikabat) – M<sup>a</sup> Paz Martinez de Ilarduya – Edurne Etxeberria – Jesus Lazkanoiturburu – Juan Carlos Agirre – Igor Urrate (zinegotzia) – Kepa Urzelai (alkatea) – Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) – Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (dinamizazio-taldea).

**Eskerrik asko guztioi!!!**

## 2. Zertaz? Gai bakarra eta hainbat ikuspegi

- **Eskola-agenda 21: 2014-2015eko ikasturtean egindako lana, proposamenak eta hartutako konpromisoak**





## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Hasteko, hitza eman diogu Eskola-agenda 21ari.

Olazabal institututik eta Haztegi ikastolatik lau ikasle etorri dira gaur eta haiek izan dira ikasturtean zehar Legazpiko 3 ikastetxetan egindako lanaren berri eman dutenak. Gaia: **"Bizitzeko herria"**. Gai zabala, interesgarria, egunekoa eta arlo eta gai desberdinetatik landu dutena: jolasguneak, irisgarritasuna, merkataritza eta kaleetako bizitza.....

Horrela, haien parte hartzeari eta azalpenei esker maila bakoitzean –lehen Hezkuntzan, bigarren Hezkuntzan eta batxilergoan- ondorengo hauen berri jaso dugu:

- Urtean zehar egindako lanak zer eman duen.
- Ikasle gisa hartzen dituzten konpromisoak.
- Udalari egiten dizkioten proposamenak.

Maila	Aztertutako gaia	Ikasleen konpromisoak
LH- 1 eta 2	Jolasguneak eta iristeko bideak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ez ditugu lurrera paperak, txikleak,.... botako eta behar bezala erabiliko ditugu paperontziak.</li> <li>• Herrian antolatuko diren ekimen desberdinetan hartuko dugu parte eta ideia berriak proposatuko ditugu.</li> <li>• Ez ditugu paretak margotuko eta jarlekuak modu egokian erabiliko ditugu.</li> <li>• Portaera egokien oinarrizko arauak beteko ditugu eta horrela egiten ez dutenei esan egingo diegu.</li> </ul>
LH- 3 eta 4	Eskolarako bidea.	
LH- 5 eta 6	Aisiarako eta denbora liberarako guneak.	
DBH- 1 eta 2	Bizirik dagoen herria.	
DBH- 3 eta 4	Hondatutako eremuak.	
Batxilergoa	Udalerrian eskaintzen diren azpiegiturak eta zerbitzuak.	

Legazpiko Udalari egindako proposamenei dagokienez, hona hemen:

### Udalari egindako proposamenak:

#### 1. Parkeak eta aisiarako guneak:

- Agirre-Etxeberri parkean iturri bat jartzea eta Laubide parkeko iturria konpontzea.
- Parkeetan estalitako guneak egokitzea.

#### 2. Kaleak:

- Laubide auzotik ikastolara eta Musika eskolatik ikastolara doazen bideetan semaforo gehiago jartzea.
- Laubide auzotik Domingo Agirre eskolara doazen eskailerak konpontzea eta arrapalaren aldapa beheratzea.

## Udalari egindako proposamenak:

### 3. Azpiegiturak:

- Urtatzako urtegiari erabilera berria ematea: berdegunea bihurtzea, graffitiak egiteko aukera...
- Azokan sortzen diren aire-korronteak saihesteko sistemaren bat jartzea.

Aurkezpenaren ondoren, zoriondu egin ditugu lau ikasleak eta ikastetxeak. Segidan, hainbat kontu zehaztu eta balioetsi ditugu.

**Zorionak!!! Lan bikaina!**

- Eskola-agenda 21ek eskatzen duen **inplikazioa**: azpimarratzekoa eta onartzekoa da neska-mutikoen konpromisoa, batik bat ordezkariak borondatez lan egiten dutela kontuan hartuta.
- Eskola-agenda 21aren eragina, geletan lantzen dena familietara eraman eta zabaltzen da; etxean gai horietaz hitz egiten da.
- Hartutako konpromisoak eta Udalari egiten zaizkion **proposamenak**:
  - Benetan beharrezkoa al da Laubide auzotik ikastolara doan bidean semaforo gehiago jartzea?  
Aldiz, Musika eskolaren ondoan dagoen semaforoa beharrezkoa dela uste dugu baina ez dago gehiago jartzeko asmorik –Musika Eskola Agirre-Etxeberri etxera doanean, dezente gutxituko baita oinezkoen igarotzea-.
  - Legazpi garbi mantentzea guztion konpromisoa da eta erronka nagusia; izan ere, denok ordaintzen dugu gutxi batzuen herritar sen eskasa.

Eta kontu batek beste bat dakarrenez, ikastetxeek egin dituzten ekarpenek solasaldi interesgarria sortu dute Foroan; momentu batzuetan solasaldi hori desordenatua eta kaotikoa izan da baina, era berean, atsegina eta interesgarria. Hona hemen sortu diren galderak:





## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Nola baloratzen dugu Legazpi bertan bizitzeko herri gisa?

Herri bizia al da Legazpi?

Orain dela 10 urteko Legazpirekin alderatuz gero, ze bilakaera izan du herriak?

- Abiatzeko hausnarketa: **“bizitzeko herria” eta “herri bizia”, gauza bera al dira?**

Taldean iritzi desberdinak azaldu dira:

- Batzuentzako ‘herri bizi’ bat pertsonen mugimenduekin dago lotuta eta ‘bizitzeko herria’ bertan dauden zerbitzuekin eta ekipamenduekin.
- Beste batzuentzako ideia beraren ñabardurak dira.

- Edozelan ere, **zer dago horren atzean? Herri bizia edo bizitzeko herria diogunean**, zer datorkigu burura?

Talde honentzako, bizitzeko herriak honakoa esan nahi du...

- Bertako kaleetatik oinez eta lasai ibil daitekeela.
- Kanean jendea dagoela, mugimendua.
- Erosoa dela.
- Guztiontzako –gizarte talde desberdinentzako– zerbitzuak eta ekipamenduak dituela.
- Ekintzak eskaintzen eta onartzen dituela eta herritarrek horietan era aktiboan parte hartzen dutela.

- **Eta Legazpi? Nola baloratzen dugu gaur egun?**

Egun, taldearen iritzi, Legazpi bete egiten ditu esandako irizpideak.

- Zerbitzu eta ekipamendu asko eskaintzen ditu. Eta adibide moduan kiroldegia aipatu da; hura zabaltzean aukera asko zabaldu zitzaizkien kolektibo desberdinei, hala nola, emakumeei –kirola egiten hasi eta aisiarako denbora beste modu batera gozaten hasi zirela-.
- Ekintza asko antolatzen dira.

- **Atzera begiratu gero, nola egin du herriak aurrera?**

2 ideia nagusitzen dira:

- Udaleri gisa, hobera goaz.
- Eta badago ukatu ezin den gauza bat: oro har, aldatu egin da gizartea eta bizitzeko modua –baita Legazpin ere-.

Orain dela 30 urte, langileak fabrikatik irteten zirenean mugimendu handia zegoen kalean, tabernetan,... bai hirigunean eta bai auzoetan; gizonetakoak ziren gehienak. Lana ardatza zen eguneroko bizitzan, ekintza desberdinak antolatzen ziren arren: antzerkia, dantza,...

Aldiz, gaur nagusia da denbora libre. Ekipamendu eta zerbitzu gehiago ditugu. Ekintza asko eta desberdinak ditugu, era askotakoak, -kultur arlokoak, kirola, mendiarekin lotutakoak...-. Eta hiriguneak bizirik dirau -bertan pilatzen da jende gehien, nagusiak nahiz haurrak...-, baina egia da auzoek indarra galdu dutela.

- Etorkizunari begira: **zer hobe dezakegu bizitzeko herria izan dadin?** Solasaldian sortu diren proposamen interesgarriak:

1. **Naturarekin eta lehen sektorearekin harremana, hiri-baratzeen bidez.**

Hiri-baratzeen bidez naturarekin harremanetan egotea oso inportantea dela uste dugu. Modu horretan gauza askotaz ohartzen gara: elikagaiak nondik datozen, ingurunea zaintzeak duen garrantzia.... Legazpin ugariak dira baratza baina horiek arautu beharra ikusten da, ordena jartzea, daudenak txukuntzea eta agian baratze berriak egokitzea gazteentzako edo interesatuta egon daitezkeenentzako.

2. **Jolas librerako guneak haurrentzako eta neska-mutikoentzako.**

Gaur egun dauden gune guztiak "zementuzkoak" dira. Gune libreak falta dira, berdegune gehiago; jolas libre, esplorazioa,... sustatuko dutenak.

3. **15 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzako guneak eta ekintzak.**

Legazpin bada Gazte-txokoa eta bertan egoten dira batik bat 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak. Eta gero Gaztetxea dago. Baina 15-18 urte bitarteko gaztetxoentzat ez dago ekipamendurik; egungo aukera gazte-lokalak dira.

Neurri apalagoan, 8 eta 12 urte bitarteko haurrek ere hutsune bat dutela antzematen da baina adin horretakoak jolasteko aukera eskaintzen duen estalitako gune batekin konformatzen dira - pilotalekua edo gizarte-zentroa -.

Horregatik, komenigarria izango litzateke 15 eta 18 urte bitarteko gaztetxoentzat zerbait espezifiko sortzea: biltzeko eta elkarrekin egoteko gune itxia; eta ekintzak antolatzea -asteburuetan adibidez-.


Eta gure arreta jaso duen hausnarketa bat: ikasleek egin dituzten proposamenak beste kolektiboentzako egindakoak izan dira -eta ez dute beraientzat ezer eskatu-. Era berean, Agenda 21eko Foroko kideok gazteek zer behar duten pentsatzen jarri gara. Bitxia, ezta?

### 3. Bukatzen ari gara!

Eta ideiak eta pentsamenduak bueltaka ditugula bukatzen dugu, gaiak asko ematen duelako eta jarraitzeko aukerak ikusten ditugulako...

Eta irribarren artean zortea opa diegu alderdi eta hautagai politiko desberdinei, izan ere Agenda 21eko Foroaren hurrengo hitzordua **ekainaren 4an** izango da eta gobernu talde berria izango dugu orduan.

Ganorazko harrera prestatuko dugu...



Bitartean, Legazpiri bizia ematen arraitu, Foro honekin egiten duzuen bezalaxe!

**Eskerrik asko, ohi bezala, atsegina izan da!**